

# Dokumentuek ere haurrekin bidaiatzeko dute

Hainbat gauza prestatu eta hainbat neurri hartu behar dira haurrekin oporretan joateko, eta bereziki garrantzitsua da dokumentazio guzti-guztia hartzea eta behar bezala eguneratua egotea



Oporretara eraman beharreko gauzen artean, zein ote dira jendeak maiz ahazten dituenak? Izan zitezkeen sandaliak, xanpua edo jeans berriak, baina horiek zakuan sartuta egoten dira gehienez; ez, ordea, pasaporte, nortasun-agiria edo haurrekin bidaiatzeko behar-beharrezko diren beste dokumentu batzuk. Horiek, zakuan ez, baina etxeko tiraderaren batean ahaztuta geratzen dira maiz. Adin txikikoekin bidaiatu behar denean, ezinbestekoa izaten da zenbait dokumentu eskuratzeko (aldatu egin daitezke helmugaren eta erabiliko den garraiobidearen arabera). Hori dela eta, haurrekin bidaiatzeko egin behar diren prestakuntza guztiak egiteaz gain eta hartu behar diren neurri guztiak

hartzeaz gain, behar-beharrezkoa den dokumentazio guztia eraman behar da, ongi eguneratua eta indarrean dagoela, jakina. Beharrezkotzat jotzen den dokumenturen bat eskura izan ezean, gerta liteke hegazkinera igo ezinik geratzea edo herrialderen batean sartzeko baimenik ez ematea.

Familia askok izaten dituzte gisa horretako eragozpenak urtero, ezagutza faltagatik edo aurreikuspen okerrak egin dituztelako; beraz, aurrez informatzea komeni da, zenbaitetan aste batzuk ere behar izaten dira-eta dokumentuak eskuratzeko. Txango bat edo pakete turistiko bat kontratatu aurretik, edo itsasontziko edo hegazkinetako txartelak hartu aurretik, behar-beharrezkoa da bidaia-agen-

tzia edo garraio-konpainian galdetzea zer-nolako dokumentuak diren ezinbestekoak haurrekin bidaiatzeko. AENAtik baieztatzen dutenez, adibidez, oinarriko arau batzuk erabiltzen dituzte bidaiari guztientzat, baina enpresek modu independentean funtzionatzeko dute, eta gerta liteke batzuek dokumentu gehiago eskatzea beste batzuek baino. Herrialde batetik bestera ere aldatu egiten dira eskakizunak, eta adin txikikoek eta helduek zer-nolako harremana duten elkarren artean, orduan ere dokumentu batzuk edo besteak behar izaten dira.

Gauza asko hartu behar dira kontuan, eta egoera zailak ere sor litezke unekinetan. Dena dela, haurrekin bidaiatzeko denean, badira ezinbesteko jotzen diren paperak. Honako hauek dira:

**NA:** 14 urtez gorako pertsona guztiak legez behartuta daude Nortasun Agiria edukitzera. Adin horretatik beherakoak ez daude behartuta, baina hegazkin-konpainia askok eskatu egiten dute. Nortasun Agiriarekin, Espainian zehar bidaiatu daiteke, baita Europako Batasuneko herrialdeetan, eta Europako Ekonomia Esparruan ere bai (Alemania, Andorra, Austria, Belgika, Bulgaria, Danimarka, Erresuma Batua, Errumania, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Kroazia, Herbehereak, Hungaria, Irlanda, Islandia, Italia, Letonia, Liechtenstein, Lituania, Luxemburgo, Mazedonia, Malta, Monako, Norvegia, Polonia, Portugal, San Marino, Suedia, Suitza, Txekiar Errepublikak eta Zipre).

**Pasaportea:** dokumentu horrekin, munduko herri guztietara joan daiteke (baita aurretik zerrendatu ditugun Europako herrialdeetara ere). Dena den, Txinan, Indian eta Egipton ez da aski

pasaportea eramatea: turista-bisa bat ere aurkeztu behar izaten da. Pertsona guztiek bete behar izaten dute baldintza hori, adinez nagusi direnek eta ez direnek, eta, beraz, inora abiatu aurretik, herrialde horretako kontsul-etera deitzea komeni da, eta hbertan galdetzea zer dokumentu eskatzen dituzten atzerritarrek herrialdean sar daitezten.

**Baimen bereziak:** adin txikiko bati pasaportea eginda –betiere gurasoek edo legezko tutoreek lagunduta egin behar da–, adin txikiko horri baimena ematen zaio bidaia dezan, baina beti da egokia gurasoek edo tutoreak dokumentu batean berariaz adieraztea adin txikikoari baimena eman diotela bidaian joan dadin. Idazki hori polizia-etxeetan lortzen da, epaitegietan eta notaritzetan, eta bereziki beharrezkoa izaten da adin txikiko bakarrik joateko denean edo gurasoak ez diren beste norbaitekin (eskolako lagun baten familiarekin, institutuko irakasleekin...). Gurasoak bananduta badaude eta bietako batekin atzerrira doanean ere erabilgarria izaten da. Baimen hori ezinbestekoa izaten da, pasaportea eduki beharrean, adin txikikoak Nortasun Agiria soilik badu.

**Familia-liburua:** adin txikiko gurasoekin joan bada, komeni izaten da horiek familia-liburua eraman dezaten, batez ere Espainian. Berez, liburua ez da beharrezkoa bidaian joateko, baina derrigorrezkoa da dokumentu batzuk eskuratzeko (NA eta pasaportea, adibidez); izan ere, familia-liburuan ez da argazkirik agertzen, eta, beraz, ez du balio identifikatze-agiri gisa. Hala ere, frogatzeko erabil daitezkeen elementu bat gehiago da, haurren eta helduen odol-harremana erakusten

duena, eta, aldi berean, guraso-agin-tea eta haurraren zaintza norena den azaltzen du. Dokumentuak aukera ematen duenean, komeni da haurrak gurasoen pasaportean sartzeko, han agertzen da-eta haien argazkia.

**Europako Osasun Txartela:** ez da derrigorrezkoa izaten beti, baina zenbait herrialdek eskatu egiten dute. Norberak kontrata ditzakeen mediku-aseguru pribatuz gain, are lasaitasun handiagoa ematen die Europara doazen familiei, helmugako herrialdeko osasun-zerbitzu publikoak erabiltzeko aukera eskaintzen baitio txartelaren jabeari. Europako Osasun Txartelak urtebeteko balioa izaten du, eta Gizarte Segurantzaren egiten da, bai Internetez edo bai bulegoren batera joanda.

**Txertoak:** zenbait herrialdeetara joan aurretik, eritasun batzuen aurkako txertoak hartu behar izaten dira, baita zenbait birusen aurkakoak ere, norbere herrialdean desagertu diren arren, aktibo jarraitzen baitute beste leku batzuetan. Arau honek berdinduko balio du helduentzat eta haurrentzat, baina haurrak zaurgarriagoak dira, eta arreta berezia jarri behar zaie. Espainiako Estatuan, 77 zentro daude kontu horietan espezializatuak (Nazioarteko Txertatze Zentroak esaten zaie). Horietan, beharrezko diren txertoak eta komenigarri jotzen direnak jartzen dituzte, zenbait eritasuni buruzko informazio ematen dute eta osasun arloko aholkularitza-zerbitzua eskaintzen diote bidaiariari. Nahiz eta berehala artatzen duten, denbora hartuta joatea komeni da, bidaian abiatu baino lau eta sei aste lehenagotik hartu behar izaten dira-eta zenbait txerto.

➔ [www.consumer.es](http://www.consumer.es)



## NOLA EGIN ADIN TXIKIKO BATEN NA

- **Haurrarentzako Nortasun Agiria egin nahi denean, gurasoetako batek lagunduta joan behar du, edo legezko tutoreak bestela.**
- **Nortasun Agiria egiten duten leku-etako batera joan behar dute adin txikikoak eta haren ordezkariak. Polizia-etxeetan egoten dira. Aurrez ordua hartzeko, telefonoz dei daiteke (902247364) edo Internetez eskatu.**
- **Honako dokumentu hauek eraman behar izaten dira: hitzez hitzeko jaiotza-agiria (Erregistro Zibilean ematen dute); eta haurra bizi den udalerriko erroldatze-agiria.**
- **Haurra laguntzera joan den helduak egiaztatu egin behar du bera zein den (NA erakutsiz Espainiako herritartasuna badauka, eta egoiliar-txartela edo pasaportea, atzerritarra bada). Horretaz gain, frogatu egin behar du umearen gurasoa dela edo tutorea, eta horretarako, familia-liburua erakutsi behar du edo epailearen ebazpena edo ebazpen administratiboa, zeinetan agertuko den bera dela tutorea eta guraso-agintean jabea.**